



SAILBURUA  
LA CONSEJERA

Familia estimatuak:

Zirkular honen bidez jakinarazten dizuegu Gasteizko, Bastidako eta Guardiako Samaniego BHIko ikastetxeetako eskola-jarduera aldi baterako eteteko hartutako erabakiaren berri, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren jarraibideak betez. Etete horrek hamabost eguneko iraupena izango du hasieran, hau da, martxoaren 10etik 23ra, egun hori barne.

Neurri hori aipatutako udalerrietan bereziki eragiten ari den koronabirus-foku epidemiologikoak eragin du, gaixotasun horren transmisioa eta kutsatze-kopurua kontrolatzeko. Osasun Sailak bultzatutako neurriaren helburua koronabirusa ikasleen artean hedatzeari eustea da, koronabirusa eskala handiagoan transmititu ahal izatea saihestuz.

Osasun Sailak gomendatzen du ikasleek etxeko bizitza normala egin badezakete ere, ahal den neurrian saihestu dezatela taldeko jarduerak egiten diren esparru itxietan egotea. Era berean, osasun-agintarien gomendioak betetzeko eskatzen dizuegu, hartutako neurriek izurritea kontrolatzen lagunduko dutelakoan.

Ikastetxeek zabalik izango dituzte familiekin komunikatzeko ohiko bideak, horri buruzko informazio eguneratua helarazteko.

Adeitasunez, 2020ko martxoaren 9an.

  
  
HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Cristina Uriarte Toledo  
Hezkuntzako Sailburua

